

Omenaldiak

2020an omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak

Karlos III.aren Gurutzea Saria jaso du Patxi Salaberri Zaratiegik

Nafarroako Gobernuak Karlos III.aren Gurutzea eman dio Patxi Salaberri Zaratiegik euskaltzain osoari Hizkuntzalaritza arloan egin duen ikerketa-lan zabalagatik: Nafarroako hizkeren bilketa eta analisisa, Nafarroako fonoteka, euskal dialektika eta oikonomia (etxeen izenak), besteak beste.

Salaberriekin batera, Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartearen Nafarroako Ordezkaritza; M.^a José Calasanz, Gregorio Luri eta Ana M.^a Monreal izan dira sarituak.

Patxi Salaberri Uxuen jaio zen. Oinarrizko ikasketak Iruñean egin ondoren, Filologia Hispanikoa lizentziatu zen Nafarroako Unibertsitatean 1980an. Euskal Filologiako lizentziatura 1986an Euskal Herriko Unibertsitatean burutu eta, halaber, doktoregoa eskuratu zuen 1992an, Eslabako toponimiaz egindako tesiarekin, Ricardo Zierbideren zuzendaritzapean. Lan horregatik 1992-1993 ikasturteko EHUren doktorego saria jaso zuen.

Irakaskuntzari dagokionez, unibertsitate eskolako irakasle tituluduna izan zen 1986-1996 urteen artean, Zaragozako Unibertsitatean eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan. 1996-2008 urteen artean NUPko Euskal Filologiako irakasle tituluduna izan zen, eta 2008tik aurrera katedraduna. Era berean, Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saileko buru izan zen bi aldiz (2002-2003 eta 2008-2010 urteen artean). Euskal Filologia eta Hizkuntzalaritzako doktorego eta master ikastaroak eman ditu, orobat, EHUen.

Nafarroako Unibertsitate Publikoan hurrengo karguak beteak da: Ikerketa Batzordeko kidea (1993-1997), UBIko Euskara ikasgaiaren arduradun irakaslea

(1992-1999), Giza eta Gizarte Zientzietako Fakultateko idazkaria (1996-1999) eta Hizkuntza Plangintzarako errektorearen ondokoa (2003-2005). Halaber, Hizkuntza Normalizatorako batzordekidea izan da bi aldiz.

Vianako Printzea Erakundearen *Fontes Linguae Vasconum*eko zuzendaria da, Jose Mari Satrustegi euskaltzaina 2003an hil zenetik. Euskaltzaindiaren *Euskerako* (2009) idazketa kontseiluko kidea izateaz gain, beste hainbat aldizkaritako batzordekidea ere bada: NUPren *Huarte de San Juan. Filologia eta hizkuntzaren didaktika* (1995), EHUren ASJU (2001), Eusko Ikaskuntzaren *Oihenart* (2009) eta Udako Euskal Unibertsitatearen *Uztaro* (2010) aldizkarietakoa, hain zuzen ere.

Manuel Lekuona Saria 2020 jaso du Jose Ramon Etxebarriak

Jose Ramon Etxebarria euskaltzain urgazleak Manuel Lekuona Saria 2020 jaso du. Epaimahaiak baloratu du gernikar horrek unibertsitateko ikerketa eta irakasuntzaren arloan euskararen normalizazioari egindako ekarpen garrantzitsua, komunitate zientifikoarentzat lexikografia ezartzea ahalbidetu baitu, komunikazio globalaren teknologia berrien laguntzaz.

Jose Ramon Etxebarria euskaltzain urgazlea da 2006tik aitzina. Ingeniaria, fisikan doktorea, irakaslea, euskaltzalea, idazlea, itzultzailea eta politikaria da. Zientzia eta teknologia gaiak euskaraz ezagutarazteko testuak egiteko lanean nabarmendu da.

1966an Bilboko Santutxu auzoan, helduen euskara irakasle ibili ondoren, ikas-tolen mugimenduari eta, gero, unibertsitateari loturik, zientzia arloko material didaktikoak sortu eta terminologia landu zituen. Udako Euskal Unibertsitatean hasieratik aritu zen, Euskal Herriko euskarazko unibertsitatea dinamizatzen eta irakasle-lanetan.

1975etik 1992ra arte, berriz, fisika-irakasle jardun zuen Euskal Herriko Unibertsitatean (hasieran Bilboko Unibertsitate Autonomoa izan zena).

2007tik 2018ra bitartean Testugintza Teknikoko irakaslea izana dugu, unibertsitate bereko Bilboko Ingeniaritza Eskolan.